



BARREN

TOKIKOM



**Koronabirusaren aurka,
lehen lerroan**

Elkarlanean dihardugu.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.



GREMIOEN GIDA

Arozlegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura

Leihoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilero

21 €ren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiko ikusiena.

4.885
de astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112

Alto Agirre Kulturagunea, 3. J. 3. esk
20870 ELGOIBAR

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



LG55UM7100PLB TELEBISTA



LG UHD TV AI ThinQ

439 €

- 55 pulgada
- A+
- ULTRA HD 4K
- SMART TV
- WIFI
- Smart TV
- Bluetooth
- ULTRA SURROUND soinua

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

IRUNE ARRIOLA,
Arriola Botikakoa

“Euskaraldiak gure hizkuntza ohiturak berrikusteko aukera ematen digu”

◊ **Zer moduz zaudete? Nola eragin dizue koronabirusak?**

Ondo gaude. Lankide bat bera ere ez da gaixotu eta lanean jarraitu ahal izan dugu. Zortedunak izan gara. Hasieran guardiako leihatilatik ematen genituen botikak, bestela, distantzia mantentzea

ezinezkoa zelako. Bezero bakoitzarekin denbora gehiago egiten genuen, baina orain manparak ditugu eta atea ireki dugu. Bi pertsona sartzen dira gehienez botika barrura eta besteek kanpoan itxaroten dute. Jendea ohitu da distantzia mantentzera eta itxaron behar bada, itxoitera.

◆ **Euskaraldiari tartea eskaintzeko moduan zaudete?**

Martxo hasieran Amaia [Lasagabaster] etorri zen Euskaraldiari buruzko azalpenak ematera. Gero alarma egoera ezarri zuten eta lanez lepo ibili gara, baina hemendik aste batzuetara Euskaraldian pentsatzeko moduan egongo garela uste dut.

◆ **Zuen botikako jendea animatuko al da?**

Euskaraldirako deialdia ikusi nuenean izena ematea pentsatu nuen, garrantzitsua iruditzen zaidalako norberak ahal duen moduan bere aletxoak jartzea. Guztiok zebait egiten badugu, gutxi bada ere, batuta asko da. Gu hiru lankide gara, eta animatuko gara ohitura batzuk aldatzera.

◆ **Zer garrantzi ematen diozue zuen botikan euskarari?**

Jendea bere osasun arazoak azaltzera etortzen da farmaziara eta askoren ama hizkuntza euskara da. Beraien egoera askoz hobeto azaltzen dakite euskaraz. Aukera hori ematea garrantzitsua iruditzen zait.

◆ **Zer eskainiko dio Euskaraldiak zuen botikari? Eta, Elgoibarri?**

Euskara zaindu beharreko altxor bat dela uste dut. Euskaraldiak gure hizkuntza ohiturak berrikusteko aukera ematen digu. Euskara erabiltzen ez dugun arlo edo pertsona batzuekin euskara erabiltzen hasteak, ohitura hori denboran mantentzea ekar dezake.

IZASKUN LANDA ETA INES SESMA,
Fadek ileapaindegikoak

“Osasuna daukagun bitartean, Euskaraldiari kasu egiteko prest egongo gara”

◊ **Nola eragin du koronabirusak Fadek ileapaindegian?**

Osasunez ondo gaude, eta hori da garrantzitsua. Gobernuak alarma egoera ezarri zuenean antsietate moduko

bat sentitu genuen, baina egunak aurrera joan ahala, lasaitu ginen. Oso gogorra da irabazten duzuna baino gehiago gatzatzea, jakin gabe egoera horrek zenbat iraungo duen. Baina beste egoera zail batzuk ere gainditu ditugu, eta hemendik ere irtengo gara. Orain inguruak kezkatzen gaitu. Lagunak ditugu langabezian, eta jende askori eragingo dio egoerak. Kontsumoan igarriko da, eta horrek ematen digu beldurra.

◆ **Euskaraldia Taldekoekin egiteko moduan zaudete?**

Bai, Euskaraldia eta gure lana ez dira bateraezinak. Aurrera egin behar dugu, normaltasun berri horretara lehenbailehen iristeko. Osasuna daukagun bitartean, Euskaraldiari kasu egiteko prest egongo gara. Lehenengo edizioan ere hartu genuen parte. *Belarriprest* izan ginen, euskaraz hitz egiteko ez daukagulako erabateko ziurtasunik, baina ulertu ondo egiten dugu. Orain ere animatuko gara, eta ahal dugun neurrian parte hartuko dugu.

◆ **Zein garrantzi dauka euskaraz zuen lantokian?**

Saiatzen gara ahal dugun gehiena euskaraz egiten. Lehen hitzak behintzat beti euskaraz egiten ditugu: telefonoa euskaraz erantzuten dugu eta bezeroak ileapaindegira etortzen direnean euskaraz hartzen ditugu. Gero, bezeroaren eta bere beharren arabera, jarraitzen dugu euskaraz edo ez. Guk gaztelaniaz ikasi dugu, gaztelaniaz irakurri dugu eta gaztelaniaz egiteko ohitura daukagu, baina ohiturak aldatzeko daude.

◆ **Euskaraldia bezalako ekimenak garrantzitsuak dira zuen ustez?**

Bai, oso garrantzitsuak. Askotan ematen du dena barneratuta daukagula, baina tarteka horrelako mezuak entzutea eta gogoraraztea beharrezkoa da, bestela ahaztu egiten zaizkigu.



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



John Snow, h-rekin

gora bi asteren buruan. Umeak asko.

Irailaren 3an bisitatu zuen John Snowk inguru. Broad eta Cambridge kaileen gurutzaketan zegoen iturri publikotik hurbil zeuden etxeetan eman ziren kasu gehienak. Iturria aztertu zuten, baina kutsadura aztarnarik ez.

Azken egunetan hildakoen zerranda zehatza osatu zuen hurrengo. Iturritik hurbil zegoen garagardo fabrika bateko langilerik ez zegoen hildakoen artean. Eta 5 hildako baino ez, 500

“Biharamunean iturria itxi eta egun gutxira izurritea etetea lortu zuten. Epidemiologiaren hastapenak ziren”

pertsonatik gorako, inguruan kokatutako behartsuentzako etxean. Hampstead eta Islingtonen ere hasiak ziren kasuak zenbatzen; iturritik urrun. Kolokan zegoen Snowren tesia.

Etxebizitza guztiak banaka bisitatze-ari ekin zion. Behartsuentzako etxeak eta garagardo fabrikak ur putzu propioa zeukatela jakin zuen. Islingtoneko zenbait heriotzari lotuta ezagutu zituen, Broad kaleko iturritik ura hartzen zuten biktimen kasuak: “zapora hobea” ei zuen.

Irailaren 7an, izurritearen erdian, agintariekin bilera bat eskatu zuen Snowk. British Museumean dago, egun, Snowk biktimen kopurua eta lokalizazioa jasoz egindako mapa originala, bileran aurkeztu eta agintariak konbentzitu zituen. Biharamunean iturria itxi eta egun gutxira izurritea etetea lortu zen. Epidemiologiaren hastapenak ziren.

John Snow mediku britainiarraren susmoa zen, kolera uraren bitartez transmititzen zela eta ez airearen bitartez. Egia esan, ez zekien hori zergatik gertatzen zen, baina bien arteko korrelazio argia erakusten zuten datu pila jasoa zuen urteetan zehar. Evidentzia estatistiko hutsean oinarritutako konbikzioa zen.

1854ko agorrilaren 31n kolera izurrite hilgarri bat zabaldu zen Londresko Soho auzoan. Hiru egunen buruan 100 pertsonatik gora hil ziren; 500etik



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetx Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ BANAKETA GERTUAGO

Koronabirusaren larrialdiak bete-betean harrapatu gintuen, eta Elgoibarren eskari ugari jaso arren olioia banatu ezinda gelditu ginen. Orain lanean ari gara olioia eta kontserbak ekaineko lehen astean banatzeko, denak batera. Jakina, banaketa egiteko neurriak zorroztu beharko ditugu inor kutsatu ez dadin.

Dagoeneko Udalari eman diogu gure asmoen berri. Hala ere, beldur gara utzi ohi diguten lekua txiki geldituko ez ote zaigun. Izan ere, olioia eta kontserbak, biak, banatuko ditugu batera eta eskaerak ahalik eta modurik egokienean antolatu behar ditugu birusa ez kutsatzeko prebentzio neurri gisa.

Hori dela-eta, jendearengana jotzea erabaki dugu: norbaitek banaketa egiteko lokal egokiren bat balu eta bi egunez utzi nahi baligu, gurekin harremanetan jartzea eskertuko genioke elgoibar.errigora@gmail.com emailera idatzita.

Errigoraren Elgoibarko lan taldea

▶ ESKERRIK ASKO

Martxoaren 17az geroztik egunero irten gara leihora zuen musika-doinuak entzutera, Xeber, Edurne, Josu eta Paul. Hori da, hori, gozatua hartu duguna! Itxialdi gogorrean ekin zenioten ekimen polit honi, gu denok zaintzen eginahalak egiten dituzten profesionali eskerrak emateko eta itxialdia arintzeko. Egun luze haiei kolorea jarri zenieten, eta kalera irteteko baimena eman zigutenean ere, zuek zuen leihoretan jarraitu zenuten fin iluntzero, gure gozamenerako. Domekan eman zenuten azkena, eta ez edozelakoa! Martzela Osoro plazan sekula ez besteko giroa izan genuen, jai-usaina. Giro berezia sortu duzue auzoan; bizipoza ekarri garai zailotan. Ez zarete makalak! Eskerrik asko Bizi Poza txaranga, eta eskerrik beroenak zuei, Xeber, Josu, Edurne eta Paul, egunero eskaini diguzuen tarte goxo hauengatik. Eutsi urte askoan bizi-pozari, Bizi Poza!

J. A.

▶ ESKERRAK

Ibai Ondo erretegiak eskerrak eman nahi dizkie bere bezeroei egun hauetan izandako jarreragatik. Asko lagundu diguzue egoera berri honetara egokitzen, gure esanei kasu eginez eta gure lana erraztuz.

Badakigu egoera ez dela guztiz eramangarria, baina denon artean lortuko dugu aurrera egiten. Mila esker.

Ibai Ondo erretegia

▶ MOTXAILA EGUNEKO BERTSO-SAIOKO SARRERAK

Motxaila Eguneko bertso saioa bertan behera utzi behar izan genuen alarma egoeragatik, eta jakinarazi nahi dizuegu sarreren dirua itzultzen ari garela. Morroskilon eta Aitz Beltz tabernan saldu genituen, beraz, bakoitzak erosi zuen establezimenduan bueltatu ditzake sarrerak, dirua berreskuratzeko.

Motxaila Taldea

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENe astekarian edo www.barren.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 743 704

688 634 044



BARREN

Alta Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.
20870 ELGOIBAR



USUA TABERNA

- ➔ Terraza handia jartzeko aukera.
- ➔ Umeen parkea alboan.
- ➔ Ingurune eguzkitsua.

Alokagail



688 714 698

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia astelehenean bigarren fasera pasatzeko eskatu du Jaurlaritzak



Kongresuaren babesak jaso zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek eguaztenean, eta bosgarren aldiz luzatuko da alarma egoera, beste hamabost egunez. Dena dela, astelehenean deseskalatzearen bigarren fasea hasiko da, eta Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren eta Arantxa Tapia Garapen Ekonomikorako sailburuaren arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bigarren fasera pasatzeko baldintzak betetzen dira. Datuen arabera, epidemia eboluzio "positiboa" izaten ari da, eta hiru lurraldeak bigarren fasera pasatzea proposatu du Eusko Jaurlaritzak. Azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean «aldebiko» negoziazioan ari dira bigarren fasearen aplikazio baldintzak adosteko. Bigarren fasera pasatzeak osasun larrialdia arintzea ekarriko du, baina gerta daiteke Jaurlaritzak Espainiako Gobernuaren arauak zorroztea, lehen fasean gertatu zen bezala. Hau zen osteguneko egoera:

Lehen fasea, arinduta

Joan den astelehenetik probintzian zehar mugitzeko aukera dago Hego Euskal Herrian. Horrez gain, 10.000 biztanletik beherako herrietan ordu mugak kenduko zituztela iragarri zuten, eta erabaki hori indarrean jarriko zela BOEn argitaratzen zenean. Eguaztenean oraindik ez zegoen argitaratuta hala ere. Ordu mugarik egon ez arren, umeek oraindik ordu bete bakarrik egin dezakete kalean. Elgoibarren egoera ez da aldatuko, 10.000 biztanle baino gehiago dituelako.

Maskarak derrigorrezkoak

Espainiako Gobernuak eta erkidego autonomoetako osasun sailburuek adostu dute maskarak derrigorrezkoak direla garraio publikoan (orain arte bezala), leku itxietan, eta baita aire librean ere, ezin bada bi metroko tartea mantendu beste oinezkoekin.

Bigarren fasea

- Tabernak, elkarteak eta jatetxeak %50eko edukierarekin irekitzea proposatu du Eusko Jaurlaritzak. Espainiako Gobernuaren proposamena %40koa da. Taberna, elkarre eta jatetxe barreneko baldintzak terrazen berak lirateke: mahaietan kontsumitu beharko litzateke, pertsonen arteko bi metroko tartea errespetatuta, eta ezingo litzateke zutik edo barran egon.
- Probintzien arteko mugikortasuna mugatzen jarraitu nahi du Jaurlaritzak, «arrazoi sozioekonomikoetarako» salbu. Hala, lanera edo medikuarengana joateko mugitzen ahalko litzateke, proposamenaren arabera, baina «inola ez» kirolerako, aisialdirako edo kultur arazoietarako.
- Zineak, antzokiak, auditorioak, aretoak, museoak... ireki ahal izango dituzte, edukiera %30era mugatuta (Eusko Jaurlaritzak esana dauka ekainaren 1era atzeratu nahi duela neurri hori).
- Areto itxietan kontzertuak egin ahal izango dira, edukiera %30era mugatuta (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan ekainaren 1etik aurrera).
- Aire librean kontzertuak egitekotan, eserita izan beharko da, eta 400 pertsona gehienez.
- Gurtza lekuek edukieraren %50 arte betetzeko aukera izango dute.
- Ehiza eta arrantza baimenduko dituzte.
- Eskolak, oro har, itxita egongo dira irailera arte, baina salbuespen batzuekin; adibidez unibertsitateko hautaprobea prestatu behar duten ikasleentzat irekitzeko aukera egongo da. DBH4ko, Batxillergoko bigarren mailako eta Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleak klasera itzuli ahal izango dira, modu boluntarioan beti. Gurasoek presentzialki lan egin behar duten kasuentzat, 6 urtez azpiko umeentzat haur eskolak irekitzeko aukera aipatu du Espainiako Gobernuak.
- Azterketak egin ahal izateko espazio handiak irekitzearen alde ere egin du Jaurlaritzak, BEC edota Ficoba esaterako.
- Hizkuntza eskolak eta euskaltegiak irekitzearen alde ere egin du Jaurlaritzak proposamenean. Zahar etxeetara senideak bisitan joan ahal izatearen alde ere bai.


Uztailaren 12rako deitu ditu Urkulluk Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk uztailaren 12rako deitu ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta hiru arrazoiak eman ditu bere erabakia azaltzeko: osasun-arlokoa, izaera juridiko eta legalekoa eta parte-hartzea bermatzekoa. Bere agerraldian, Urkulluk esan zuen uztailaren 12rako hauteskunde-deialdi honek pandemia eta Euskadiko osasun-egoera ebaluatzeko konpromiso publikoa jasotzen duela. Era berean argudiatu du beharrezkoa dela lehenbailehen Legebiltzarra eratzea eta erabat operatibo egotea hemendik aurrera ireki den ziklo ekonomiko eta sozial berriak eragindako beharrei intentsitate eta baliabide guztiekin erantzuteko.



Debegesak bezeroaren arretarako bulegoa ireki du hitzordua duten pertsonentzat

Debegesa garapen agentziak astelehenean zabaldu zuen berriz bulegoa lana bilatzeko prozesuan orientazio bila dabilzan pertsonentzat, errehabilitazio zerbitzuko laguntzei buruzko informazioa behar dutenentzat edota ekintzailletza prozesuan aholkularitza nahi dutenentzat. Hitzordua duten herritarrei soilik eskainiko diete arreta momentuz, eta zita eskatzeko 943 820 110 zenbakira deitu beharko da 8:00etatik 15:00ak bitartean. Bulegora hurbiltzen direnek maskara eraman beharko dute. Bulego barruan higienarako eta babeserako gel hidroalkoholiko banagailuak, erabili eta botatzeko zapiak eta babes-manparak jarri dituzte. Gainera, bulego barruko edukiera mugatu egin dute eta pertsona bakarra sartu ahal izango da, bi metroko distantzia errespetatzeko.



Mendaroko Udala aurrez aurreko arreta ematen hasi da, hitzordua hartuta

Mendaroko Udaleko Gizarte Zerbitzuak atek zabaldu ditu berriro, herritarrentzat aurrez-aurreko arreta berreskuratuz. Hori bai, egoera bere onera etortzen den bitartean, beharrezkoa izango da aurrez hitzordua hartzea jende pilaketak saihesteko, eta, soilik, ezinbesteko egoeretan atendituko dute aurrez aurre. 943 033 282 telefonora deitu beharko da txanda hartzeko edo gizartekintza@mendaro.eus helbidera idatzi. Arreta presentziala segurtasun eta higieine neurri guztiekin berreskuratu dutela jakinarazi dute Udaletik.

Informazioa jasotzeko whatsapp zenbaki bat jarri du EHBilduk

Elgoibarko EHBilduk bere jardunaren berri emateko whatsapp telefono zenbaki bat jarri du herritarren eskura: 618 680 940. Interesatuek telefono zenbaki hau gorde eta "Bai, informazioa jaso nahi dut" mezua bidali beharko dute, izen-abizenak zehaztuta.

Bolumen handiko hondakin bilketa martxan da berriro

Bolumen handiko hondakinen bilketa zerbitzua bertan behera laga zuen Debarreneko Mankomunitateak, joan den martxoaren 24an, koronabirusaren hedapena sahisteko, baina astelehenean martxan da berriro. Mota honetako hondakinak atera aurretik, abisua eman behar da 943 700 799 telefonora deituta. Etxetresnak eta altzariak atera daitzke, baina ez hondakin toxikoak, lorezaintzako hondakinak eta ezta obra txikietako hondakinak ere.

Gazteen alokairua sustatzeko 50.000 euroko dirulaguntza emango du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak 50.000 euroko dirulaguntza banatuko du 18 eta 35 urte bitarteko elgoibartarren emantzipazioa sustatzeko. Iaz, era honetako 30 eskaera tramitatu eta onartu zituen Udalak. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 5era arte egongo da zabalik. Eskaera modu elektronikoan aurkeztu beharko da Udalaren webgunean dagoen herritarren atarian: www.elgoibar.eus. Eskaera aurkeztu ahal izateko, beharrezkoa izango da identifikazio elektronikoa eskuratzea, eta horretarako, Elgoibarko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzura (Santa Ana kalea, 2) jo behar da. Eskera egiten den unean, Elgoibarren errol-

datuta egotea ezinbestekoa da, gutxienez eta etenik gabe, bi urteko antzintasunarekin, edota udalerrian, etenik gabe, 5 urtez errolatuta egon direla errolatuta egiaztatu beharko dute. Eskatzaileek 18 eta 35 urte artean izan beharko dituzte 2020an, eta ezingo dute etxebizitzarik eduki jabetzan. Era berean, ezingo dute izan 18.000 euro gordin baino gutxiagoko eta 29.000 euro gordin baino gehiagoko diru-sarrerarik. Etxebizitza bakoitzeko izango den laguntzaren zenbatekoa desberdina izango da, bertan bizi diren pertsonen sarreraren baturak ematen duen zenbatekoaren arabera. Udalak esan du laguntza emango zaiela Udalaren oinarrietan

aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei, eta aurrekontu-partidan jasotako zenbatekoa laguntza guztiak estaltzeko adinakoa ez bada, zenbateko hori onuradun guztien artean banatuko dutela.

Diru-sarreraren arabera, beraz, ondorengoak izango dira laguntzak: sarreraren batura 40.000 eurotik beherakoa bada, hileroko alokairuaren % 50ekoa izango da laguntza (gehienez ere, hileroko 250 euro); diru-sarreraren batura 40.000 eta 58.000 euro artekoa bada, berriz, hileroko alokairuaren %30eko laguntza emango zaie (gehienez 150 euro). Hor- tik gorako diru-sarrerak dituztenei ez zaie laguntzarik emango.



LGTBiren kontrako fobia gaitzesteko egunarekin bat egin zuen domekan Udalak

Maiatzaren 17an homofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta ekimen horrekin bat egin zuen Elgoibarko Udalak. Ortzadarraren koloretako bandera zintzilikatu zuten Kultur Etxeko horman, Elgoibar sexu aniztasuna eta genero identitatea errespetatzen dituen udalerrira dela aldarrikatzeko. Era berean, LGBTIfobia gaitzesteko konpromiso indibidual eta aktiboaren beharra nabarmendu nahi izan dute. Elgoibar diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko udalerrira gisa finkatu nahi dute agintariak, benetako errespetuan eta berdintasunean oinarritutako herria, herri normalizatua eta aurreiritzirik gabekoa.

Maiatzaren 31n hasiko dira mezak San Bartolome parrokian, eta hileta elizkizunak ekainaren 1etik aurrera egingo dituzte

Lehenengo fasean sartzearekin batera ireki zituzten gurtza guneak eta beilakotokiak, baina jende kopurua mugatuta. Elgoibarren, baina, bigarren fasera arte meza eta hileta elizkizunik ez egitea erabaki zuten. Hortaz, San Bartolome parrokiako batzordetik jakinarazi dute maiatzaren 25ean bigarren fasean sartzen bagara, hilaren 31n hasiko dituztela mezak, Pentekostes mezarekin. Hileta elizkizunak, berriz, ekainaren 1etik aurrera egingo dituzte. Astelehen, eguazten eta barixakuetan egingo dituzte orain arte atzeratuta dituzten hileta elizkizunak, eta martitzen, eguazten eta zapatuak erabiliko dituzte ekainaren 1etik aurrera hiltzen direnei azken agurra egiteko. Martitzenera arte 26 hileta zituzten atzeratuta, eta mezak banaka egiteko asmoa dute. Ekai-



nean eta uztailean ez da mezarik egongo zapatuetan, hiletarik ez badago. Mezak domeketan bakarrik egingo dituzte, 11:30ean. Maalako eliza momentuz itxita mantenduko dute, eta San Bartolome parrokian babes neurriak hartuta emango dituzte mezak. Herritarrak maskararekin joan beharko dira, eta metro bateko dis-

tantzia mantendu beharko dute elkarren artean. Datorren astean neurtuko dute parrokia eta jarlekuen arteko distantzia, zenbat jende sartzen den jakiteko. Hileta elizkizunetan hildakoaren senide eta lagunak izango dute lehentasuna, eta jende kopurua betetzen denean, ezingo da jende gehiago sartu.



Mugertza krosa hirugarren postuan da Espainiako krosen sailkapenean



Espainiako Atletismo Federazioak (RFEA) krosen urteko sailkapena argitaratu du, eta Mugertza krosa hirugarren postua dago sailkapen horretan, Burgosen jokatzeko den Atapuercako krosaren eta Sevillako Itlica krosaren atzetik. Juan Muguerza Nazioarteko Krosak 2.777,50 puntu lortu ditu, eta horri esker, Alcobendaseko krosa aurreratuta dago sailkapenean. Krosaren hurrengo edizioa 2021eko urtarrilaren 24an jokatu da Mintxetan World Athletics kategorian. Antolakuntzatik aitortu dute oso pozik daudela azken berri honekin, emaitza hauek beraien lan gogorra saritzen dutelako. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete erakundeei, babesleei, laguntzaileei, prentsari, eta batez ere, Elgoibarko herritari, urtero-urtero krosari erakusten dioten babesagatik.

Jarduera eten duten autonomoentzako laguntzak handitu ditu Lanbidek

Hasieran iragarritako 3 milioi euroei beste 13 gehitu dizkio Lanbidek, pandemiaren eraginez euren jarduna eten duten autonomoek ekonomikoki laguntzeko, eta 16 milioi eurotara handitu du dirulaguntza hori. Eusko Jaurlaritzak guztira 35,5 milioi euro bideratuko ditu pandemiak eragindako kalteak pairatu behar dituzten autonomo eta mikroenpresentzat. Eskaerak aurkezteko epea irekita dago. Laguntzak, ordea, eskabideak aurkeztutako ordena berean emango dituzte, aurrekontua agortu arte. Bakoitzak gehienez 3.000 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du. Lanbidek 12.428 eskabide jaso ditu deialdi honetan, eta jakinarazi dutenez, dagoeneko 8.822 espedienteri eman die hasiera; horietatik, 453 espedientek dagoeneko badute azterlan tekniko osoa; haietatik, 258 (% 57) aldekoak dira eta 195 atzera botatakoak. Gainera, beste 1.754 osatuta daude espediente teknikoaren zain. Era berean, 4.143 interesdun errepikatu detektatu dituzte, eta horrek zaildu egiten du Lanbide gauzatzen ari tramitea. Gainera, dagoeneko ebatzi diren espedienteen % 43,05ek ez ditu eskakizun guztiak betetzen.



OSASUNGINTZA

Erizaina da Itxasne Idoeta (Mendaro, 1987) Matia Fundazioko ospitalean, zainketa aringarrien sailean, eta medikua Susana Torres (Elgoibar, 1982) Mendaro Ospitaleko larrialdi zerbitzueta. Biak kutsatu dira koronabirusaz eta biek gairitu dute, bistan denez. Haien bizipenak bildu ditugu hiru orrialde hauetan.

- AINARA ARGOITIA -

ITXASNE IDOETA

Erizaina Matia Fundazioan



◆ Koronabirusa gairitu duzu. Lanearan harrapatu zenuen?

Hori sekula ezin da jakin eta zalantza hori ez dut argituko inoiz. Matia Fundazioan gaixo kronikoak hartzen ditugu eta ni neu zaintza aringarrien unitatean nengoen lanean koronabirusaren pandemia hasi zenean. Guk pentsatzen genuen hona ez zela kasurik iritsiko, baina Matia Fundazioa koronabirusa zutenak hartzeko eskaini zen, Osakidetza ospitaleak libratzeko, eta solairu oso bat egokitu zuten horretarako [Hilaren 12an itxi zuten]. Koronabirusaz kutsatu eta sendabiderik ez zutenak hasi ziren hona ekartzen. Hasieran hala hasi ginen, hilurren zeuden gaixoak hartzen, baina gerora, beste perfil batekoak ere hasi ziren bidaltzen eta horiek, gehienek, gairitu zuten birusa. Solairu horretan lan egiteko prest ote geunden galdetu ziguten gutako batzuei eta halaxe hasi nintzen. Bi astez egon nintzen han lanean, harik eta birusaz kutsatu nintzen arte. Esan behar dut, beste batzuek ez bezala, guk lehenengo egunetik izan genuela babeserako material guztia lanerako.

◆ Baina gaixotu zinen. Zer igarri zenuen?

Bai. Arratsalde batean, lanean nengoela, ondoezik sentitzen hasi nintzen. Bukatu nuen eguneko lana eta etxera itzuli nintzen, besterik gabe. Hurrengo egunean ere makal-antzean sentitzen nintzen, eta badaezpada, arduradunari deitu nion. Koronabirusa egon ez balitz, lanera joango nintzen lasai-asko, ez neukalako sukarrik eta aparteko beste ezer, baina kontsultatu nuen eta etxean gelditzeko agindu zidaten. Bi egunera egin zidaten proba, apirilaren 9an, eta positibo eman nuen. Eta hor hasi zen *mobida* guztia, ni Donostian bizi naizelako, baina etxebizitza beste bi lagunekin partekatzen dudalako eta makal sentitzen hasi nintzen arratsalde hartatik testa egin eta positibo eman nuen arte, etxean normal ibili ginelako, ez nuelako inondik inora uste kutsatua nengoenik. Deitu zuhurtziagabekeria nahi baduzu. Positibo eman nuen, gelan itxi nintzen eta pisukideek ere berrogeialdia bete behar izan zuten. Komunera irteten nintzen, eta sukaldera, besteek bukatutakoan, eta ondoren dena desinfektatzen nuen. Bigarren test bat egin zidaten gero, eta berriz eman nuen positibo. Eta horatik aurrera gertatu zaidan guztia ez sinestekoa izan da.

◆ Zer izan da ba?

Bigarrenegoz positibo eman nuenean, nire pisukideek nork bere

“Bi aldiz positiboa emana nintzen arren, ez zidaten hirugarren test bat egin nahi izan”

medikuari deitu zioten, zer egin behar zuten galdetzeko. Bati berrogeialdia ezarri zioten, eta besteari bizitza normala egiteko agindu zioten. Lantokitik ere lanera itzultzeko eskatzen ari zitzaizkion eta presio horren pean, agindua bete zuten. Hor konturatu ginen irizpideak ez zirela betetzen ari. Apirilaren 20an egin zidaten bigarren testa. Positibo eman nuenez, hirugarren bat eskatu nuen gero, ezetza eman zidaten. Mutuan esaten zidaten sintomak agertu eta hamabost egunera kutsatzeko arriskua oso txikia zela eta lanera hasteko moduan nintzela. Era berean, baina, esan zidaten beraiek ez zeudela konforme neurri horrekin, baina hori zela Osakidetza zehaztuta zeukana. Familia medikuak, berriz, esan zidan berak ezin zuela hirugarren test bat egitea eskatu, hori Mutuari zegokiola, baina baja luzatu zidan. Eta hor erabili ninduten, pilota moduan, bote-boteka, batetik bestera. Biek iradoki zidaten ez zetozeela bat Osakidetza zehaztutako neurriarekin, baina eskuak lotuta zituztela. Eta hala, bi aldiz positibo emana nintzen arren, ez zidaten hirugarren test bat egin nahi izan.

◆ Eta nola lortu zenuen hirugarren test hori egitea orduan?

Matia Fundazioan egin zidaten. Lantokitik garbi esan zidaten ezin nintzela itzuli lanera egoera horretan, eta tarte horretan ospitaleetako, zahar etxeetako eta egoitzetako profesionalen test serologikoak eta PCR testak egiten hasi zirenez, hor sartu ninduten ni ere lankideek. Eta izan nuen *mobida* guzti horregatik behar baino astebete geroago egin zidaten hirugarren test hori, normalean berrogeialdia bete eta astebetara egiten dituztelako. Horregatik lasai nengoen. Ez nuen inondik inora imajinatzen hirugarrenean ere positibo emango nuenik. Batetik, ez neukalako sintomarik, eta bestetik, berrogeialdia beste astebetetz luzatua nuelako proba egin nuenerako. Sekulako kolpea izan zen. Ezin nuen sinetsi. Ordurako

nire pisukideak lanean hasita zeuden gainera. Sekulako kulpa sentazioa sentitzen nuen, eta sentitzen nuen pisukideak ere zeharo akonplejatura zebiltzala kalean. Pisukideek lasai egoteko esan zidaten, baina egun gutxira, haietako batek dezima bi eman zituen lantokian egin zioten tenperatura-hartze batean. Telebistan esan eta esan ari ziren ordurako Osakidetza hasia zela testak egiten sintoma arinak agertzen zituzten guztiei, baina hor konturatu ginen gezurra zela, nire pisukideari ez ziotelako egin, eta azkenean, biek zentro pribatu batean egin behar izan dutelako proba serologikoa. Hori bai, zorionez, biek eman dute negatibo. Eta niri laugarren testa anbulatorioan egin zidaten, joan zen astelehenean. Hirugarren positiboa eman nuenean goitik behera aldatu ziren gauzak eta ordura arte testik egin ezin zuen medikuak berak eman zidan laugarrena egiteko eguna eta ordua. Eta laugarrenean, negatibo eman dut. Pentsatzen dut niri hau gertatu bazait, antzeko kasu gehiago ere izango direla, ez naizela ni izango salbuespena.

◆ Nola eraman duzu hau dena?

Fisikoki ondo egon naiz, eta alde horretatik ondo, baina ez da erraza izan. Martitzenean, hilak 12an, jaso nuen emaitza eta

“Esan eta esan ari ziren Osakidetza hasia zela testak egiten sintoma arinak zituzten guztiei, baina gezurra zen”

eguzten gauean hasi nintzen lanean, poz-positik. Desiatzen nengoen. Kutsatu aurretik lanean eman nituen bi asteak oso gogorak izan ziren, baina aldi berean, asko bete ninduen lan hark. Iristen zitzaizkigun gaixoak eta askotan senideek eurek ere ez zekiten Matiarra ekarriak zituztenik, guk deitu arte. Eguneroko gure lanak amaitutakoan saiatzen ginen etxekoekin bideo-deiak egiten. Ikusten genuen hiltzera zetozela gurera eta etxekoak ikusi gabe hil behar zirela. Zaila da eramaten hori, eta ahaleginak eta bi egiten genituen gurekin zeuden tartean etxekoek ahal zen gehienetan ikus zitzaten. Lan extra bat zen, koronabirusak are gehiago konplikatu zuen eguneroko lan jardunaren barruan, baina gustura egiten genuen

◆ Eta, nola bizi duzu orain konfinamenduaren arintzea?

Ez dakit. Batetik, ikusten ditut terrazetako irudiak eta pentsatzen dut arduragabe ari garela, baina bestetik, nahasmendu honetan ulertu ere egiten ditut gauza batzuk. Egia da denok jokatu behar dugula arduratsu eta distantziak-eta zaindu, baina bestetik uste dut ikusten ari garen irudi hauen ardura nagusia osasunaren aurretik ekonomia lehenetsi dutenek dutela, eurek zabaldu eta sustatu dutelako kontsumorako bidea. Ezin da bidea eman eta gero erruduntasun kulpa osoa herritarrei egotzi.

SUSANA TORRES

Mendaroko Ospitaleko Larrialdietako medikua



“Lehenengo sintomak agertu eta hamar egunera ingresatu ninduten alde biko pneumoniarekin”

◆ Non kutsatu zinela uste duzu? Nola igarri zenuen?

Non kutsatu nintzen ez dakit, baina suposatzen dut lanean izan zela. Martxoaren 19an egin nuen testa, eta positibo eman nuen. Hiru bat aste neramatzan ez tulo tonto batekin, baina ez nion garrantzirik eman urtero izaten ditudalako halako eztu-aldiak. Baina, gau batez, lanean nengoela, arraro sentitzen hasi nintzen eta bi dezima nituela ikusi nuen. Eta medikua naizenez, momentuan egin nuen testa eta positibo eman nuen. Etxera itzuli nintzen segituan, logelan ixteko planarekin, senarra eta bi semeengandik aparte. Bi egunera, baina, senarra ere sukarrarekin hasi zen, eta



positibo eman zuen. Umeak asintomatikoak izan dira beti eta gurekin egon dira prozesu osoan, ez zeukalako zentzurik gu geunden egoeran semeak aitxixa-amamengana eramateak. Etxean konfinatu ginen laurok eta ate ondora ekartzen zizkiguten erosketak-eta. Senarrak dezima gutxi batzuk eta burukomina izan zuen pare bat egunez, baina nik ez nion bueltarik ematen. Gauetan sukarrak handia izaten nuen, neke handia sentitzen nuen, dastamena ere galdu nuen eta bazkaltzera ere ezin izaten nintzen jaiki. Hala, neure burua esploratu eta biriketan zarata nuela igarrita, larrialdietara joan nintzen. Han, alde biko pneumonia nuela baieztatu



OSASUNGINTZA

zidaten eta ingresatu egin ninduten. Martxoaren 29an ospitaleratu ninduten, lehenengo sintomak agertu eta hamar egunera. Bost egun egin nituen ingresatuta, eta guztira, hilabete egin dugu inorekin harremanik izan gabe, nik sendagiria jaso ostean beste hamabost eguneko berrogeialdia bete genuelako laurok.

◆ Nola orotzen duzu ospitalean eman zenuen denbora?

Gela batean egon nintzen, neu bakarrik, bisitarik gabe. Bakardadea handia da. Gelara sartzen ziren mediku, erizain eta erizain laguntzaile guztiak nor beren babeserako ekipo guztia jantzita sartzen ziren. Ekipo hori janztea, eta batez ere, erantzeta ardua handiz bete beharreko protokoloa da, arriskutsua delako, eta batez beste hiru-lau minutu behar izaten zituzten horretarako. Ikusten nituen erizainak-eta betaurrekoak lausotuta lanean, bero handia sufritzen eta oso deseroso. Nik banekien zer neukan eta zer jasan behar nuen, baina gaztea naiz, pertsona autonomoa eta komunikaziorako bitarteko guztiak izan ditut eskura: sakelako telefonoa, tableta... Hala ere, ez da samurra, eta horregatik sekulako pena sentitzen nuen ondoko geletan zeuden adineko pertsonekin akordatzean. Bakardade absolutuan eraman dute gaitza askok. Bakarrik eta desorientatuta dagoenarentzat gelara sartzen diren pertsona guztiak astronauta jantzita ikustea ere oso gogorra izan behar da.

◆ Medikua zara, eta beste gaixo askoren aldean zuk eza-gutza bat ere baduzu gai hauetan. Hori zer izan zaizu lagungarri ala kontrakoa?

Larrialdi zerbitzuetara joatea kostatu zitzaidan, banekielako joanez gero ospitaleratu egingo nindutela eta kezkatzen ninduelako etxeko egoerak. Senarrak berriro okerrera eginez gero umeak non laga horrek estutzen ninduen. Egia da, era berean, etxean egon nintzen garaian askoz okerrago egon nintzela ingresatu ostean baino, baina bai, beharbada beranduegi joan nintzen ospitalera. Beldurra ere izan dut, bai, edo gutxienez tentsio hori. Okerrera egiten hasten zarenean ez dakizu zenbat makalduko zaren, ez eta Zainketa Intentsiboan Unitatean bukatuko duzun ere, gaitz hau oso ezezaguna zaigulako oraindik. Jende gazte askok bukatu du ZIU ere, eta kezkatzea normala da.

◆ Koronabirusa gurera iritsi eta oso gutxira gaixotu zinen zu. Lanera itzuli al zara berriro?

Bai. Ingresatuta egin nituen bost egun haien ondoren, beste hamabost eguneko berrogeialdia bete genuen etxean eta bigarren testa egin nuen gero. Ostiral bat zen, negatibo eman nuen, eta igandean itzuli nintzen lanera.

◆ Eta ospitalera lanera itzultze hori nolakoa izan da?

Larrialdi zerbitzuetan egunero moldatu behar izan gara protokolo berrietara egokitze eta gaixo egin nuen hilabete horretan zirkuito guztiak aldatu zituzten ospitalean eta protokoloa bera ere

“Itxura ona dauka, baina beldur naiz konfinamenduaren arintze honek ez ote digun bigarren gorakada bat ekarriko”

aldatu da. Beldurrik ez dut izan, hala ere, hori baldin bada galdera. Zorionez, gainera, nire gorputzak immunitatea garatu du, ez dakit

zenbaterainokoa eta zenbat denborarako, baina lagunduko dit horrek ere hasieran. Dena den, gaitza izan ez banu bezala babesten naiz orain ere. Igarri dudana da gaixotu nintzenetik lanera itzuli naizen bitarte honetan egoera asko lasaitu dela ospitalean. Askoz ere kasu gutxiago ikusi ditut lehen ikusten nituenak baino. Gipuzkoan egoera nahiko kontrolatuta dago, eta Mendaroko Ospitalean nik ez dut aspaldi koronabirus kasurik ikusi larrialdietan. Itxura ona dauka, baina beldur naiz konfinamenduaren arintze honek ez ote digun bigarren gorakada bat ekarriko.

◆ Udazkenari beldur handia diote mediku eta zientzialari askok. Zuk ere bai?

Aurretik izango delakoan nago. Gazte jendeak kezkatzen nau bereziki. Ulertzen dut gazte jendeak erlazionatzeko gogo eta behar handia izatea, eta gazte izanda, immuneago sentituko direla asko eta asko, baina datuek erakutsi dute adin tarte horretan ugaritu direla kasuak. Balkoira irteten naizenean kuadrilla handiak ikusten ditut elkarrekin eta kezkatzen nau. Badakit terrazetan biltzea baimenduta dutela, baina ez zait egokia iruditzen. Badakit, era berean, nire semeek ezin dutela ordubete baino gehiago egin kalean eta ez zait ondo iruditzen, baina horiek erabaki politikoak dira eta ni ez naiz hor sartuko. Iruditzen zait arauak betetzeko daudela. Guraso bakarra irten zitekeenean kalera biak irten dira kasu askotan eta iruditzen zait gure seme-alabei ez diegula mesederik egiten arauak hautsi daitezkeela erakutsita.

◆ Baimenak banatu dituzte kalera irteteko, arduraz jokatzeko eskatzen digute eta ikusi behar ez liratekeen irudiak ere ikusten ditugu kalean tarteka. Nola daramazu hau dena?

Nik ulertzen dut jendea aspertuta eta kalera irteko gogoz egotea lagunekin eta etxekoekin egoteko, baina ez dakit jendea kontziente den gertatzen ari denaz. Terrazara joateko baimena eman izanak ez du esan nahi derrigor joan behar garenik. Badakit ekonomiak mugimendua egotea eskatzen duela, baina ez da momentua. Jendeak ez dio beldurrik gaitzari, beharbada Gipuzkoan ez delako beste leku batzuetan beste kasu egon eta hau gertutik sufritu ez duenak ez duelako arriskurik ikusten. Ez dugu ahaztu behar beti dela hobeto arriskuak saihestea, eta ni neu mindu egin nau jende askoren jarrerak, bai eta haserretu ere tarteka.

◆ Arauek eurek nahasmen handia sortu dute, hala ere, eta neurri asko ulergaitzak ere egin daitezke. Zer diozu?

Gu geu garelako gure eta inguruko osasunaren erantzule eta geuri dagokigula arduraz jokatea. Guk ez badugu gure osasunagatik geure esku dagoena egiten, alferrik ibiliko gara gero konpondu ezin dena konpontzeko eskatzen. Iruditu zait pikareskarako gogoz egon dela jende bat, eta hori ez zait gustatu.

GANADUTEGIAK

Ganadu suharren sektorea, kolokan

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko hamar ganadutegik ohartarazi dute ganadu suharren etorkizuna kolokan dagoela udan jairik ospatu ezean. Mutrikuko Arno ganadutegian ere kezka handiarekin bizi dute egoera eta ilun ikusten dute etorkizun hurbila.

- AINARA ARGOITIA -

ANDONI MUGERTZA

Arno ganadutegikoa (Mutriku, 1974)

◆ **Ekitaldi publikoak debekatuta daude momentuz, eta ezin jakin udan jairik izango dugun gure bueltan. Nola eragiten dizue egoera horrek zuei?**

Eragin? Guri kalte handia ekarriko liguke jairik ez ospatzeak, eta kezkatuta, oso kezkatuta gaude. Ez dakigu zer izango den, eta galderak besterik ez dauzkagu, erantzunik ez datorrelako inondik. Ezetz garbirik ez daukagu, baina baietarik ere ez, eta hemen gaude, zer egin asmatu ezinda. Mutrikutik esan digute Madalenak ez direla ospatuko ziurrenik eta irailean Kalbarixoko jairik izango ote den ez dakigu. Soraluze, Azpeiti, Villabona... herri askotako plazetan izaten gara gu uda-sasoian, eta orain denak daude kolokan. Eta gu hortik bizi gara. Guk diru-sarrera hori gabe ez daukagu plazarako ganadua mantentzeko modurik. Eta mantendu ezin badira, hiltzegira eraman beharko ditugu derrigorrean, baina hilda ere ez dugu apenas etekinik lortuko, gure behi hauek okela askorik ere ez dutelako eta harakinek ez dituztelako nahi. Egoera, beraz, larria da. Ezinegon handiarekin bizi dugu. Ez dakigu animaliak kendu edo zer egin. Diru-sarrera hori gabe noiz arte eusteko moduan gaude ganaduei? Eutsi, eustearren, eusten diozu, baina gastua da, eta geu ere etxetik bizi gara. Tailerrean moduan da hemen ere. Lana dagoenean 200 langile jardungo dira lanean tailerrean, baina lana erdira jaisten bada, langileak kendu egiten dira, ezta? Bada, hemen, berdin. Luze eusteko ez gaude, baina orain buru batzuk kenduz gero, eta gero handik edo hemendik deitzen badigute? Ez da erraza asmatzen. Sasoi





“Egoera larria da. Ezinegon ez bizi dugu. Ez dakigu animaliak kendu edo zer egin”

honetan aurrekontuak eta lotzen egon beharko genuke, ekainetik aurrera plazaz plaza hasteko. Elgoibarko Udalarekin ez gara jarri harremanetan oraindik, baina sanbartolomeen aurretik datozen jaiek ere ez dakigu zer izango den.

◆ **Bi hilabete hauetan ere kaltea igarri duzue?**

Ez, ez horrenbeste. Orain hasten da gure sasoi. Ekainetik aurrera hasten gara plazaz plaza, baina aurrez egoten da lana. Plazara irtetea ere ez da mendian dauden larra-behiak hartu eta kamioian sartzeari. Preparatu egin behar dira. Inori ez zaio gustatzen itxura txar

reko ganadua ikustea, eta geuri gutxien. Plazan 5-6 bat lagun ibiltzen gara gutxi gorabehera. Gure bueltako lagunak dira, laguntzera etortzen direnak, eta eskertu behar izaten zaie haiei ere. Aldi baterako enpleguaren aldi baterako erregulazio espeditierik (ABEE, ERTE) eta halakorik ez dago gurean. Mugimendua hastea komeni zaigu guri. Ganadurekin lan egiteak badu beste kontu bat ere gutxi aipatzen dena. Urteetako lana izaten da arraza zaintzearena. Beti ibiltzen gara apartatzen: hau alferra da, beste honek jotzera egiten du, beste hau zintzoa da... Genetika zaintzea ere badagokigu, eta hori buru batzuk kenduz gero, eten egiten da, eta hori asko kostatzen da gero errekueratzea. Bestalde, ganadu hauek dira gure ingurunera ondoen moldatzen diren abereak, eta natura eta bioaniztasuna mantentzeko ezinbesteko eragileak ere badira, mendia garbi mantentzen laguntzen dutelako.



KULTURA

R.Sound enpresako jabea da Iñigo Herreros (Bergara, 1975). Soinu eta argiztapen lanak egiten dituzte Euskal Herriko toki askotan, eta ezagunak dira Elgoibarren ere, makina bat kultur ekintzetan ibili direlako teknikari lanak egiten. Martxoaren 13az geroztik geldirik daude, eta uda-sasoia ere galdutzat eman dute, hein handi batean. Subsidioa edo aldi baterako enplegu erregulazioari dagokion prestazioa jasotzen ari dira hiru langile, baina enpresarentzako laguntza eskatzen dute, enpresak, hilean, 1.500 bat euroko gastua duelako eta dirulaguntzarik ezean nekez egin ahal izango duelako aurrera.

- AINARA ARGOTIA -



IÑIGO HERREROS Soinu teknikaria

“Gu gabe ez dago ekitaldi publikorik, baina, hala ere, ez gara existitzen”

◆ Lehenengo eta behin, nola zaude?

Osasunez ondo, baina bestela, nahiko kezkatuta. Joan zen aстера arte oso ezkorra nintzen, baina joan zen asteen lau-bost dei jaso nituen Udal ezberdinetatik esanez uztaileko zerbaitegin nahian ari direla eta horrek apur bat lasaitu nau. Datorren asterako proposamen bat egin diot Bergarako Udalari. Jaiak dira hemen maiatzeko azken asteen eta Udalarekin hitzartu dut datorren asteen zuzeneko kontzertu batzuk grabatuko ditudala Gaztetxean, atek itxita eta publikorik gabe, eta gero grabazio horiek streaming bidez emango ditugula jaietan. Diru-sarrera bat izango dut. Ez da gauza handia izango, baina momentu honetan dena da ongi-etorria, martxoaren 13az geroztik geldi gaudelako. 2008ko krisialdia aipatzen dute batzuek. Ni hasiberri harrapatu ninduen krisi hark, 2007an erosi nuelako ganorazko ekipoa, eta ez nuen horrenbeste igarri. 2015etik aurrera askoz lan gehiago egiten ari naiz, baina. 2015ean 100 kontzertu egiten banituen urtean, orain, izango dira 300 bat, eta jakina, orain, danbatekoa handiagoa da, enpresak beste egitura bat hartu duelako eta egitura hori ere mantendu behar delako. Uste dut 2021eko udaberrira arte ez garela lanean normal hasiko, eta bitartean laguntzarik jasotzen ez badugu, oso zaila egingo zaigu enpresari eustea.

◆ Zenbat lagunek osatzen duzue enpresa? Zein da zuen egoera?

Nominan hiru langile gaude. Ni autonomoa naiz, eta beste biek aldi baterako enplegu-erregulazioeko espedientea (ABEE) dute aplikatuta. Enpresaren bueltan gabiltzan langile guztien artean eurek daude egoera onenean. Nik neuk, autonomoa izanda, subsidioa kobratuko dut, baina enpresarako ez daukat dirulaguntzarik. Martxoan kobratu ziguten autonomo-kuotaren erdia eta apirilkoaren erdia itzuliko digutela agindu digute, eta maiatzekoa

ez digutela kobratuko esan, baina ikusi beharko da. Guk, batez ere, maiatzetik urrira bitartean egiten dugu lan edo hor kontzentratzen da behintzat gure lan-karga handiena, eta tarte horretan beste langile pila baten beharra izaten dut. Sei-zortzi bat ibiltzen gara normalean neguan, baina udan, gehiago. Udan, lan-karga handiena pilotzen zaigunean, hamabi bat izatera iristen gara. Langile autonomoak edo *freelance* ibiltzen direnak izaten dira gainerako horiek, neguan aretoetan aritzen direnak lanean, eta udan eta neguan ere bai tarteka, niretzat. Udan, eguneko kontratuak egiten dizkiet teknikari batzuei, eta beste batzuk, *freelanceek*, fakturatu egiten didate egindako lana. Eta horien egoera benetan da larria. Autonomo direnek kotizatu dutenaren araberrako subsidioa kobratuko dute, eta udan kontratuarekin jardun diren batzuei langabezia dagokie, baina badago bat, esaterako, hilean 100 euro bakarrik kobratzen ari dena.

◆ Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik badira hiru hilabete. Zenbat saio galdu dituzue, esaterako?

Martxoaren 13an galdu genuen lehenengo kontzertua, Martxilek alarma egoera ezarri bezperan, eta ordutik 60 bat kontzertu galdu ditugu, eta jakina, kontzertu guzti horiek ezinbestean laga behar izan dituztenez bertan behera, kontratatatu gaituztenek ez dute guri ezer ordaindu beharrik izan, ulertzekoa dena bide batez esanda. Guk urtean 300 bat kontzertutan egiten ditugu teknikarilanak eta kontzertu horietako gehienak udan izaten direla kontuan hartuta, uda-sasoia erdi galdutzat eman dut dagoeneko. Iritsiko zaizkigu gauza txiki batzuk, baina hau luze doa eta ez dakit zer izango den. Ostalaritzan bezala, gure sektorean ere baldintza oso zorrotzak jarriko dituzte lanean hasteko eta horrek ikaragarri zailduko du gure etorkizuna. Batetik, Udalek ez dakite aurrekonturik izango duten gauzak antolatzeke, ez eta zein baldintzatan

egin ahal izango dituzten ekintzak ere, eta bestetik, ez dakigu jendeak nola erantzungo duen.

◆ **Nolakoa aurreikusten duzu uda?**

Erdi galdutzat eman dut. Esan dizudan bezala, joan zen as-tera arte oso ezkorra nintzen eta pentsatzen nuen datorren udaberrira arte ezingo nuela lanik egin. Orain argi-izpi bat edo beste ikusten dut, baina horrek ez du esan nahi datorren horrekin enpresak aurrera egin ahal izango duenik. Hilero 1.500 euro galtzen nabil eta alarma-egoera kentzen dutenean aldi baterako enplegu erregulazio espedienteak kentzen badizkigute eta autonomo-kuota kobratzen hasi, hilean 3.000 euro galtzen hasiko naiz. Horregatik, alarma egoera luzatzea eskatzen dugu guk, bestela ezingo dugulako jarraitu. Berez, ekainaren 30era arte luzatu dute, baina orduan kenduko balute, zer? Zenbateko sarrera izango genuke guk?

◆ **Kulturaren sektorea osatzen dutenek ohartarazi dute kultur ekosistema dela hemen kaltetuena. Greba ere egin zuten apirilean. Itxialdian inoiz baino beharrezkoago izan du jendeak kultura. Duen balioa aitortzen diogu?**

Ez. Konfinatuta egon garen garaian kontzertuetara, zinemara edo antzokira joatea faltan bota du jendeak, baina egia da azkeneko urteotan kultur eskaintza asko handitu den arren, kontsumoa ez dela proportzio berean hazi. Jendea ez da kontzertuetara-eta joaten. Nahiko nuke jendeak gogoeta egitea honen inguruan eta konfinamenduan izan duten gose hori izatea gero ere; kontsumitzea kultura, alegia. Antolatzaileek eginahalak eginda ekintzak antolatzen badituzte eta jendeak erantzuten ez badu, antolatzaile horiek hurrengo ez dute ezer antolatuko, antolatzea beti delako lana, beti delako gastua. Faltsukeri handia dagoela iruditzen zait. Kontzertu eske jardun diren asko ez dira gero aretoetara joaten. On-line kontsumitu nahi dutela? Orain nik neuk egin dut proposamen hori Bergararako, ezin dudalako eraman geldi egote hau, baina kontsumo ohiturak aldatuz gero jendeak jakin beharko du ba guk ere jan behar dugula, ala? Sortzaileek eurek eta guk jartzen dugun ale hori gabe, ez dago kulturarik.



◆ **Kulturaren mundu prekario horretan, sortzaile asko baino ikusezinoak direnak badirela ohartarazi zuen Iban Urizarrek hemen bertan. Zuei buruz ere ari zen.**

Hala da-eta. Kontzertuetan ere nahikoa ikusezin gara, beltz jantzita goazelako eta jendeak ez duelako gure lana ikusten. Agintariak ere ez dute ikusten guk kulturari egiten diogun ekarpena. Beraien mitinetarako ere behar gaituzte, baina hala ere, ez dute gure lana ikusten, pentsa! Gu barik ez dago kulturarik, baina ezta mitin, mintegi, hitzaldi eta abarrik ere. Baina bai Jaurlaritzaren eta baita Espainiako Gobernuaren dirulaguntzak eskatzeko ere artista erregimenean egon beharra dago derrigor, eta gu ez gaude. Gu ez gara existitzen. Gu ez gara azaltzen inongo epigrafetan dirulaguntzak jaso ahal izateko. Horrez gain, artista erregimenean bageunde ere, jarduerak etenda

izanda ezingo genuke ezer eskatu. Nola liteke baldintza ezberdinak eskatzea ostalariei edo zerbitzuetakoei eta kultura ari garenoi? Eta gero, Eusko Jaurlaritzak jakinaraztea zozketa bidez erabakiko duela zer ordenatan aztertu kultura arloko profesionalentzako ezohiko diru laguntzen eskaerak... zer nahi duzu esatea ba? Lotsagarria da, negargarria!. Zein mundutan bizi gara, baina! Eta beste kontu bat: dirulaguntzak eskatzeko, urtean ordu kopuru jakin bat kotizatu beharra jartzen dute baldintzatzat, baina kultur mundua nola dagoen dakienak badaki oso gutxi dutela aukera baldintza horiek betetzeko. Nolanahi ere, gauza bat esan nahiko nuke: Jaurlaritzak banatua duela dagoeneko kulturarako agindu duen diru-poltsa hori, diru hori aurtengo aurrekontuetan kulturarako zegoen diru-partida delako. Entzun dut 4,5 milioi euro gehiago jarriko dituztela kulturarako, baina ikusteko dago hori. Nolanahi ere, guk ezin dugu parte hartu, ez gaudelako artista erregimenean. Horregatik eskatzen dugu laguntza gure enpresentzat. Kulturaren mundu prekario horretan, beraz, ikusezinak gara gu, bai. Ez daukagu hitzarmenik ere. Nire nominan soinu teknikaria naizela jartzen du neuk eskatu nielako hori jartzeko aholkularitzakoei, baina zenbat langile daude mundu honetan egiten dutenarekin zerikusirik ez daukan epigrafe baten barruan, lan-hitzarmenik ez daukagulako sektorean? Nire langile batzuk, esaterako, metalaren merkataritza lan-hitzarmenean daude. Egin kontu! Soinu eta argi teknikariak, *backlinerrak*, *managerrak*... Gu gabe ez dago ekitaldi publikorik, eta hala ere, ez gara existitzen. Aurki manifestu bat argitaratuko dugu, sektorearentzako duintasuna eskatzeko.

“Kulturaren mundu prekarioan ikusezinak gara gu”






TURISMOA

Donostiako El Corte Inglés bidai agentzian lan egiten du Leire Arevalo elgoibartarrak. Martxoaren 14tik bulegoa itxita dute, baina udarako itxaropentsu dago, eta uste du, uztailean eta abuztuan Espainia mailako turismoa baimenduta egongo dela.

- AINHOA ANDONEGI -

LEIRE AREVALO

El Corte Inglés bidai agentziako langilea



“Uztailean eta abuztuan Espainian zehar bidaiatu ahal izango da”

◆ Nola eragin du koronabirusak bidai agentzietan?

Nik oporren alorrean egiten dut lan, eta alarma egoera ezarri zutenetik, enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientean nago. Egia da lan egin genuen azken aste hura nahasi samarra izan zela eta igartzen gurela zerbait bazetorrela, baina ostiral hartan etxera joan ginenean ez genuen uste inondik inora astelehenean lanera itzuliko ez ginenik. Lan guztiak erdizka geratu zitzaizkigun, ez gurelako pentsatzen bulegoa itxi egingo zutela. Orain ari gara jendeak garai honetarako erosita zeuzkan bidaiak bertan behera uzten, eta alarma egoerak irauten duen bitartean, ezin dugu oporretarako bidairik saldu. Koronabirusak kalte handia eragin du turismoaren sektorean. Hotel asko itxi dira, eta aire-konpainiak ere une gogorrik bizitzen ari dira, lanera joateko ere ezin delako apenas bidaiatu.

◆ Zer gertatu da garai honetarako kontratatuta zeuden operatzaileekin?

Gure kasuan saiatsen ari gara bezeroei dirua itzultzen. Kasuak eta kasuak daude, eta kasu batzuk antzerakoak izan arren, ez dira berdinak, beraz, bakoitzari bere tratamendua eman behar zaio. Hegaldien kasuan aire-konpainiarekin harremanetan jartzen gara, eta beraien irizpideak bete behar izaten ditugu. Batzuk dirua itzultzen dute, beste batzuek kopuru berberarekin beste data batean bidaiatzeko aukera ematen dute eta badira urtebeteko epean gastatzeko bonoa ematen dutenak ere.

◆ Nola aurreikusten duzue aurtengo uda? Egongo da bidaiatzeko aukerarik?

Dena ondo badoa, deseskalatzea ekaina amaierarako bukatuta

egongo da, eta guri esan digutenez, uztailean eta abuztuan Espainian zehar bidaiatu ahal izango da, bai penintsulan eta baita uharteetara ere. Azken batean Espainian turismoak diru asko mugitzen du, jende asko bizi da turismotik eta bidaiatzeko aukera egongo dela esan digute. Sektore garrantzitsua da, eta nire ustez berrakibatutako egin behar da, baina segurtasun neurriak hartuta.

◆ Distantziak mantendu behar direla diote adituek, birusaren hedapena eteteko. Nola eragindo du horrek hegaldietan?

Guk entzun dugunez, hegaldiak beteta joango dira, orain arte bezala, baina bidaiari guztiak maskara eta eskularruak eraman beharko dituzte. Hegazkinetan ezin da bi metroko distantziarik mantendu, bestela askoz jende gutxiago kabitzen da eta ez da errentagarria. Hasieran esan zuten bidaiarien artean jarleku bat hutsik laga beharko zela, baina badirudi ez dutela neurri hori hartuko. Modu horretan prezioa garestitu egingo litzateke, eta hori ere ez zaie komeni, bestela jende gutxiagok bidaiatuko duelako. Oraindik aztertzen ari dira hegaldietako babes neurriak. Hoteletan, bestalde, Kanaria uharteetan bereziki, eskaintza bereziak egiten ari dira, jendea animatzeko. Kontua da bidaiatzeko baimena eman arren, jende askok oraindik beldurra edukiko duela. Horregatik jendea animatzeko beharpenak egiten ari dira zenbait hoteletan.

◆ Uda honetan, beraz, gertuagora bidaiatu beharko dugu?

Ba ez dakigu nazioarteko turismoa baimenduko duten, baina ez badituzte mugak zabaltzen, gertuago geratu beharko gara. Hitz egiten ari dira Europa mailako turismoa behintzat baimentzeko, kutsatu kopuru antzekoa duten herrialdeen artean, baina oraindik ez dakigu ezer. Birusaren eboluzioaren arabera hartuko dituzte erabaki guztiak. Gertuago bidaiatzeak aukera eman dezake opor luzeagoak egiteko, baina hori ere ezin da jakin, egoera honek familien ekonomian eragina izan duelako. Jende asko ABEEen dago, beste batzuk langabezian eta beste batzuk lehen bezala daude, beraz, bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera oporrak prestatuko ditu. Momentuz jendea geldirik dago, eta nik uste dut faseak nola gaintzen ditugun ikusi arte jendea ez dela hasiko bidaiak erosten. Aurtengo azken momentura arte itxarongo du jendeak, eta gehienak penintsulan geldituko direla esango nuke.

BIZIPOZA



Konfinamenduko bizipoza



Martxoaren 14an, Mendaron Motxaila Eguna ospatze-koa ziren egunean, alarma egoera ezarri zuen Espainiako Gobernuak eta konfinatzera behartu herritarrek. Eta hiru egunera, martxoaren 17an, ekimen berezi bati ekin zioten Bizi Poza txarangako hiru kidek: Xeber Loiolak, Edurne Olazabalek eta Josu Motrikok, sare sozialen bidez herrian zabaldu zen proposamen bati helduta. Herritarrek eskura zituzten erremintak hartu eta leiho eta balkoietatik *Mendaroko Martxa* jotzeko eskatzen zuten mezu hartan. Txarangara ere iritsi zen proposamena, eta Martzela Osoro plazara leiho eta balkoiak dituzten txarangako hiru kide hauek, elkar xaxatuta eta instrumentuak hartuta agertu ziren iluntzean leihora. Jo zuten *Mendaroko Martxa* zuzenean eta estimatu zieten auzotarrek. Biharamunean, Egoi Motrikok, Josuren semeak, mezua bidali zien loiolari eta Olazabali, bigarren eguneko kantua zein izango zen galdezka, jarraitzera xaxatuz alegia. Eta 5 urteko umeari ezin ezetzik esan!. Halaxe, geroztik, iluntzero-iluntzero irten dira leihora txarangako hiru kide hauek. 62 egunez, egunero, kantu bat jo dute hutsik egin gabe, eta tarteka, auzotarren urtebetetze egunetan, bi ere bai. Domekan eman zioten azkena ekimen honi, eta iraun duen bitartean, kantu bakar bat ez dute errepikatu. Ez zaie erraza egin, hiru instrumentu izatean, kantutegiko kantu asko ezin izan dituztelako jo, eta horri elkar ikusi gabe, nork bere etxetik, distantziara eta oihartzun handia sortzen den plazara begira jotzea gehitu zaizkiolako. Baina moldatu dira, eta eskertu diete auzotarrek, bereziki itxialdiaren garai gogorrean.

Giro berezia sortu dute Martzela Osoro plazan, bestela hutsa eta bizitasun handirik gabea den plazan, eta auzoko bizilagunek eurek ere harreman berezia egin dute haien artean, ekimen honi esker. Txarangako hiru kideren saioari Paul Lopez auzoko gazteak eman die azkena egunero-egunero. Txarangakoek bukatu ostean, kantu bat jarri ohi zuen Lopezek etxean zuen megafonotik, eta



Edurne Olazabal, Paul Lopez, Josu eta Egoi Motriko aita-semeak eta Xeber Loiola.

txalo zaparrarekin bukatu ohi zuten egunekoa. Baina benetakoa azkena domekan eman zioten. Berez, maiatzaren 24rako zuten iragarria azkeneko emankizuna, baina joan zen astean beste deialdi bat zabaldu zen sare sozialetik, zeinean eskatzen zen domekan sekula baino handiagoa izatea 20:00etan osasungintzako profesionali eskaini ohi zitzaizen txalo-zaparrada. Txarangako gainerako kideekin berba egin, eta deialdi horrekin bat egin zuten. Eta balio izan ziren hiru hilabetez eutsi dioten ekimenari merezi zuen azkena emateko. Txarangako gainerako kide guztiekin batera Martzela Osoro plazara batu ziren Loiola, Olazabal eta Motriko aita-semeak eta hiru kantu jo zituzten: *El Rey*, ekimena hasi zutenean jo zuten lehenengo kantua; *Resistiré*, itxialdian sona handia hartu duen kantua, eta *Bukatu da, bukatu da*, Euskal Telebistako *Funtzioa* saioak modan jarri zutena. Martzela Osoro plazara leiho eta balkoiak dituzten auzotar askok etxetik jarraitu zuten saioa, orain arte moduan, baina beste asko plazara jaitsi ziren eta handik jarraitu zuten, beste herritar askoren antzera. Txarangakoek hiru kantu horiek jo ostean, kantu bat jarri zuen Paul Lopezek, eta Udalak santanak bertan behera lagako zituela iragarri eta astebetara, jai-usaina itzuli zen Mendarora



MUSEOAK

Museoen Nazioarteko Eguna izan zen astelehenean, baina alarma egoeran gaudenetik, museoak itxita daude. Hori dela-eta, ateak itxita ospatu behar izan zuten eguna museoek, tartean Elgoibarko Makina Erremintaren Museoak. Bertatik bertara bisitatzeko aukerarik izan ez zutenek, herritarrak bisita birtual bat egitera gonbidatu zituzten museoako arduradunek, 360 graduatan egindako bideoei esker. *Barren.eus* atarian ikus daitezke bideoak. Museoen Nazioarteko Eguna aitzaki hartuta, Bea Ansola Makina Erreminta Museoeko zuzendariarekin hitz egin dugu, koronabirusak nola eragin dien jakiteko.

- AINHOA ANDONEGI -

BEA ANSOLA

Makina Erremintaren museoeko zuzendaria

♦ **Martxoaren 13an bertan behera geratu ziren kultur ekitaldi guztiak eta kultur gune guztiak itxi zituzten, museoak barne. Espero zenuten?**

Konfinamenduaren aurreko egunetan, museoeko lagun diren enpresetako kideen bitartez Txinan gertatzen ari zenaren berri izan genuen, baina ez genuen pentsatu Euskal Herrira horrelakorik iritsiko zenik. IMHn ikasten ari diren txinarrak ahoko maskarekin ikusten genituen, baina orain dela bi hilabete inork ez genuen uste gaur gu ere egoera horretan egongo ginenik. Sinestezina egiten da.

♦ **Une hartatik, nola moldatu zarete? Zein egoeratan daude museoeko langileak?**

Argi neukan ezer gertatu aurretik museoa itxi egin behar genuela, eta martxoaren 14ko goizean lanera joan ginen arren, museoa itxi egin genuen. Gizarte osoaren konpromisoa eskatzen du horrelako pandemia batek, eta kasu hauetan lehentasuna norberaren eta gainerako guztien osasuna bermatzea izan behar da. Museoa mota askotariko bisitariak izaten ditugu: ikasleak eta irakasleak, enpresariak, jubilatuek, atzerritarrak... Birusa erraz zabaldu zitekeela iruditu zitzaigun, eta onena museoa ixtea izango zela erabaki genuen. Egia esanda, ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Gauza luzatzen zihola ikusita, apirilean enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea eskatu genuen langileentzat eta horrela gaude momentuz. Baina zorionez osasuntsu gaude, eta ez da gutxi!

♦ **Nola eragin du koronabirusak zuen jardunean?**

Erabat eragin digu. Aurtengorako, gainera, bisita asko genituen lotuta Bilbon egiten den Makina Erremintaren azokaren harira. Espainiako eta atzerriko jende asko gerturatzen da makina erremintaren azokara, eta azokak iraun bitartean ikastetxe askoren bisita jasotzen dugu museoa. Alde horretatik, gure agendako erreserba guztiak bertan behera gelditu zaizkigu. Bestalde, makina erremintaren azokan bertan antzinako ofizioen erakustaldia



“Ekainaren 1ean daukagu asmoa museo publikoari zabaltzeko”

egitea pentsatuta geneukan, eta hori ere ezin izango dugu egin. Ikusi egin beharko dugu azaroan egiteko aukerarik ote daukagun. Urteko programazioari dagokionez, bestalde, ekintza guztiak moldatu behar izan ditugu. Aurten, jarduera gehienak ikastetxeetara bideratuak genituen eta COVID19aren ondorioz, gelakako bisitarik ez dugu izango. Irailean ikusi beharko dugu nola hasten den ikasturtea. Egoera zein den ikusita, Elgoibarko elkarte ezberdinekin harremanetan jarri naiz, eta Eusko Jaurlaritzatik museoa zabaltzeko baimena ematen digutenerako ekintzak prestatzen ari naiz. Ikusi egin beharko dugu zein aukera dauden apurka-apurka eta ahal dugun heinean herria bizirik mantentzeko.

♦ **Astelehenean Museoen Nazioarteko Eguna izan zen. Ohiko ospakizunik ezin zenez egin, nola ospatu zenuten?**

Beste ospakizun mota bat neukan pentsatuta egun horretarako, baina egitaraua aldatu behar izan nuen. Aurten, museoak ezin izan du bisita fisikorik jaso itxita zegoelako, beraz, bisita gidatu birtuala prestatu dugu bideoen bidez. Tolosako bi mutil gaztek zaharren egoitzetan kalera irten ezin diren aitona eta amamentzat bideo bat grabatu zuten aurreko urtean, eta, horren harira, adinekoentzat ez ezik, mundu guztia errentzat museoako ateak

irekitzea ekintza polita dela iruditu zait. Espero dut museoak bisita birtual pila bat jaso izana.

♦ **Espainiako Gobernuak lehenengo fasean eman du liburute-giak eta museoak zabaltzeko aukera, baina Jaurlaritzak ekai-nera arte itxita mantentzea erabaki du. Nola hartu duzue murrizketa hori?**

Fundazioa garen aldetik, museoak irekitzea edo ez, gure erabakia da. Dena dela, ekainaren 1ean daukagu museoak berriz publikoari zabaltzeko asmoa.

♦ **Makina Erremintaren museoak eskola-umeekin egiten du lan. Nola aurreikusten duzu ikasturte berria?**

Eskola umeekin lan asko egiten dugu, bai, eta aurten, gainera, Elgoibarko bi ikastetxerekin lankidetzan proiektu interesagarri bat geneukan esku artean, baina COVID19aren eraginez, gure arteko komunikazioa eten egin da. Nahikoa daukagu denok une honetan bakoitzak bere etxetik, guraso, irakasle, sukaldari, garbitzaile, psikologo eta bestelako lanak egiten. Espero dut gauzak bere onera bueltatzen direnean gaiari helduko diogula, baina orain momentuan beste lehentasun batzuk daude eta proiektu hori bigarren plano batera pasatu da. Ikasturte berria ez dut oso argi ikusten. Adituek diote udazkenean berriz ere birusa zabaldu daitekeela, beraz zuhurtziaz jokatu beharko dugu denok. Irailerako pentsatuta genituen Bizilabe tailerrak ere ez dakit egin ahal izango ditugun. Bestalde, enpresetako bilerak ere ez dakit egin ahal izango ditugun museoan, luntzak ere agian ezin izango dira egin... Egia esanda gure diru-sarrerak horiek bertan behera gelditu dira. Aurtengo urte gogorra izango da. Beste kultur jarduerak batzuk ditut buruan orain eta horretan nabil buru-belarri. Herriko eragileekin eta kultur elkarteekin harremanetan nago irailera begira, ea zerbaitek polita egiteko aukera daukagun. Egia esan, egunetik egunera, birusaren inguruko informazio gehiago daukate laborategietan birusari aurre egiteko eta horrela izanda, akaso iraile-rako txertoa ere izango dugu. Ikusi beharko dugu nola doan guztia.

♦ **Museoaren jarduera osasun berme-ekin betetzeko aukerarik ikusten al duzu?**

Museoan hiru pertsona bakarrik gaude lanean, Valentin Larrañaga makinen arduraduna, Pedro Ortuondo zuzendari ohia (ordu solte batzuk egiten ditu) eta ni zuzendari moduan. Eusko Jaurlaritzak koronabirusaren transmisioa saihesteko emandako gomendioak jarraitu ezker, ez dut uste arazorik dagoenik gure kasuan. Museoeko espazioa oso handia da, eta aforoa neurtuz gero, ez dago pertsonen artean bi metroko distantzia

lagatzeko arazorik. Eskuak garbitzeko gela daukagu sarreran eta komunean ere eskuak sarri-sarri garbitu ahal dira xaboia eta urarekin. Lehortzeko erabilera bateko eskuohiala daukagu eta langileentzako maskarak ere baditugu. Gainera, museoeko garbiketa zerbitzua indartu dugu ekainera begira.

♦ **Koronabirusak museoaren helburuak aldatzea eragin dizue? Bete ahalko ditu museoak aurrerantzean bere helburuak?**

Aurtengo programaren helburu nagusia gazteak industriara hurbiltzea eta museoak bera ezagutzera ematea zen. Museoak gelan ikusitakoaren eta ikasitakoaren osagarri izan behar da, ikasleari kontzeptuak barneratzen lagunduko diona. Ikasleei manipulatzeko, esperimentatzeko edota parte hartzeko aukera eskaini nahi diegu, eta museoan ikusten dutena ikasketa prozesurako beste baliabide bat izan behar da. Hezkuntzako korrante pedagogiko berriei jarraituz, erronka bidezko ikasketa sustatu nahi dugu museoetik. Museora bisitan etorri aurretik ikastetxeekin lankidetzan, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat museoarekin zerikusia duten Unitate Didaktikoak prestatzen hasiak ginen, gure historia industrial, teknologiaren eboluzioa eta gaur egungo enpresetako errealitatea gertutik ezagutzeko, baina koronabirusaren kontu honekin, irakasleek nahiko lan daukate beraien egunerokotasun berezi honetan, nik nire proiektuarekin beste burukomin bat gehiago emateko. Momentuz, beraz, nire kabuz nabil ahal dudan guztia egiten, baina beraien falta handia daukat, beraien dakitelako inork baino hobeto zeintzuk diren ikasleek ezagutzak eta beharrak. Azken hitz hauetan, ikasleek, irakasleek eta gurasoek lana txalotu nahiko nuke. Tokatu zaigun egoera berezi honi aurre egiteko, ahal dugun guztia egiten ari garelako.

“Gazteak industriara hurbiltzea eta museoak bera ezagutzera ematea da aurtengo helburua”



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo jardun osora.
☎ 632 415 374

Edozein lan egingo nuke. Erizain laguntzaile ikasketak ditut.
☎ 647 336 626

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan ere bai. Titulua daukat.
☎ 631 121 148

Magisteritza ikaslea umeak zaintzeko eta eskola partikularrak emateko prest. Euskalduna naiz.
☎ 684 221 398

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz.
☎ 626 490 986

Nagusiak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan nahiz asteburuetan. Garbiketa lanak, planxa eta sukaldeko lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat eta arduratsua naiz. ☎ 632 355 103

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 895 039

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 386 485

Adinekoak zainduko nituzke. Erreferentzia onak daukat.
☎ 688 735 551

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke. Arduratsua naiz eta berehala lanean hasteko moduan nago.
☎ 615 526 482

Adinekoak eta gaixok zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 640 031 348

<p>Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.</p> <p>Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.</p>	<p>BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:</p> <p>Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.</p> <p>Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.</p>
--	---

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldizkaria


<p>administradores</p> <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Erria: Elkarrekin, Gurekin</p> <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxebizitza bat daukat terrazarekin, eta terraza ixtea pentsatzen ari naiz. Jakin nahi nuke lizentzia lortuz gero itxi dezakedan, nahiz eta Komunitateko Estatutuek terraza ixtea debekatu.</p> <p>Egoera batzuetan, Estatutuek ahalbidetzen dute terrazak dituzten pisuen jabeek edo horien erabilera duten bizilagunek terraza ixtea, osotasunean edo partzialki. Baina badaude kasuak Komunitateko Estatutuek espresuki debekatzen dutena terrazak ixtea. Kontuan izan behar dugu terrazak, jabetzakoak izan edo haien erabilera eksklusiboa izan, Komunitateko elementu komunak direla konfigurazioari eta estetikari dagokienez. Kasu horiek bereizi egin behar dira, estatutuak sortutako unearan arabera. Estatutu horiek eraikinaren sustatzaileak idatzi baditu, baimen hori ez da baliozkoa izango, elementu komun baten aldaketak jabeek guztiei eragiten baitie, eta guztien artean adostutako baimena lortu behar da. Aldiz, estatutuak jabe guztiek aho batez onartu bazi-tuzten, eta baimen hori jasota badago, orduan ez da beharrezkoa izango Jabeen Batzarrak gaiari buruzko beste adierazpenik egitea, eta guztiz legezkoa izango da jabeek terrazak eta teilatupeak itxi ahal izatea.</p> <p>Ondorioa. Udal ordenantzek terrazak itxeko aukera ematen duten kasuetan eta obrak egiteko lizentzia lortzen denean, Komunitateak aho batez onartzen ez baditu, ezingo dira itxiturak gauzatu. Kasu horretan, obrak egiten badira, Komunitateak edo edozein jabeek demanda zibila jarri ahal izango dio Komunitateko araudia hautsi duen jabeari.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **lñigo**, maiatzaren 27an 5 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasatu, eta muxu asko, batez ere, Mikelen partez.




Zorionak, **Ga-razi**, atzo urte bat egin zenuelako. Etxekoen eta aitona eta amoniren partez. Muxu erraldoi bat, maitea.



Zorionak, **Jone**, polit hari, bihar 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, etzekoen partez.



Mila kilo zorion, **Eneko**, familiakoen partez. Muxu pila eta estutu handi bat, etzekoen partez.



Etxeko **printze-sari**, zorionak! Dantza asko egin Unai eta Perurkin. Familia osoaren partez, muxu potolo bat.



Zorionak, **hirukote!** Maiatzaren 20, 21 eta 25! Hiru egun ospatzeko! Oso ondo pasa! Familiakoen eta bereziki, Oinatzaren partez.



Zuen zorion irribarrea urrea balitz, aberatsak izango ginatke. Zorionak zuen urrezko ezteietan, familiako guztien partez. Maite zaituztegu.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

22 BARIKAKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIKAKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez *Garitaonandia	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Maiatzaren 4tik 20ra hildakoak

. Begoña Altuna Leyaristi

85 urte. Maiatzaren 04an hil zen. Elgoibar.

. Juan Zinkunegi Iza

82 urte. Maiatzaren 15an hil zen. Elgoibar.

. Nicolas Arrieta Arrieta

78 urte. Maiatzaren 16an hil zen. Elgoibar.

. Maria Etxabe Ariznabarreta

88 urte. Maiatzaren 18an hil zen. Elgoibar.

"Traktore bat marraztu dut, zuhaitzen artean"



Elene
Izagirre
Rejas,
5 urte,
Elgoibar



"Eguzpazioa. Espazioa margotzea probatu nahi nuen eta horregatik espazio ontzi bat eta eguzkia margotu nituen."



Maule
Bengoetxea
Maiora,
8 urte
Elgoibar





Nikolas Arrieta Arrieta

2020ko maiatzaren 16an hil zen, 78 urte zituela.
Senideak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.*

Etxekoak



Juan Zinkunegi Iza

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Maria Etxabe Ariznabarreta

2020ko maiatzaren 18an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

Elgoibar eta
Mendaroko
HaurrekoLak



MATRIKULAZIOA

IZEN-EMATEA

On-line: maiatzaren 21etik ekainaren 8ra

Aurrez-aurre haurrekolan: ekainaren 1etik 8ra

ordutegia: 9:00 - 14:00

www.haurrekolak.eus

Elgoibar

elgoibar.elgoibar@haurrekolak.eus

ARREGITORRE, 4

943 742 141

Mendaro

mendaro.mendaro@haurrekolak.eus

GARAGARTZA, 5

943 755 219

